Agintariak eta Langileria

Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

2160

EBAZPENA, 2009ko apirilaren 3koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, Antonio García Garate jauna zuzendariorde operatibo kargutik kentzeko dena (Osalaneko Zuzendariordetza Operatiboa).

1999ko azaroaren 5eko Ebazpenaren bidez (azaroaren 24ko EHAA, 225. alea) Antonio García Garate jauna zuzendariorde operatibo izendatu zen Osalaneko Zuzendariordetza Operatiboan.

Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 50.2 artikuluan ezarritakoa betetzeko, eta lege horrek, Osalan sortu zuen abenduaren 21eko 7/1993 Legearen 10.a artikuluak eta aplikatu beharreko gainerako xedapenek ematen dizkidaten eskumenez baliatuta, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Antonio García Garate jauna zuzendariorde operatibo kargutik kentzea (Osalaneko Zuzendariordetza Operatiboa), eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2009ko apirilaren 27tik aurrera izango du eragina.

Hirugarrena.– Administrazio-bideari amaiera ematen dion ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezarri ahal izango da Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian; horretarako epea bi hilabetekoa izango da, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Barakaldo, 2009ko apirilaren 3a.

Osalaneko zuzendari nagusia,
IGNACIO MURGUIA MAÑAS.

Autoridades y Personal

Nombramientos, Situaciones e Incidencias

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

2160

RESOLUCIÓN de 3 de abril de 2009, del Director General de Osalan-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales, por la que se declara el cese de D. Antonio García Garate como Subdirector Operativo en la Subdirección Operativa de Osalan.

Mediante Resolución de 5 de noviembre de 1999, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 225, de 24 de noviembre, del Director General de Osalan, se nombró a D. Antonio García Garate como Subdirector Operativo en la Subdirección Operativa de Osalan.

En aplicación con lo dispuesto en el artículo 50.2 de la Ley 6/1989, de 6 de julio de la Función Pública, y en uso de las atribuciones, conferidas en esta Ley y en el artículo 10.a de la Ley 7/1993, de 21 de diciembre de creación de Osalan y demás disposiciones de pertinente aplicación.

RESUELVO:

Primero.– Cesar a D. Antonio García Garate, en el puesto de Subdirector Operativo, de la Subdirección Operativa de Osalan, agradeciéndole los servicios prestados.

Segundo.– La presente Resolución surtirá efectos a partir del 27 de abril de 2009.

Tercero.– Contra la presente Resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo, en el plazo de dos meses, a contar desde el día siguiente de la publicación de la presente Resolución.

En Barakaldo, a 3 de abril de 2009.

El Director General de Osalan,
IGNACIO MURGUIA MAÑAS.